

DROGETEN

ITTURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 208. alea. 2013ko urtarrila



**itsasoa kliskatzen
Xabier Ciarso, olosu jaiqax**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Urtarrilean matrikula zabalik



TALDEAK MAILAK ETA ORDUTEGIAK

	9:30-12:00	14:30-17:00	18:30-21:00
Hasiera Maila	•		
1.H.E/HABE 1.MAILA			•
2.H.E/HABE 2.MAILA		•	•
3.H.E/HABE 3.MAILA	•		

Klaseak astelehenetik ostegunera

AZTERKETA OFIZIALAK MAIATZEAN ETA IRAILEAN

Langabetuek eta lehen mailako ikasleek, prezio erdia

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
Tel: 943170925
euskaltegia@udalermua.net

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Igone
Amesti, Ibaia Azagirre,
Estibalitz González,
Asier Ibaibarriaga, Ane
Saénz eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Estibalitz González eta
Dorleta Vidal.

LAGUNTAILEAK:

Amalia Arriaga,
Antonio Hernández 'Cuco',
Fede Iturriagagoitia,
Patxi López, Pello Mugarza,
Valentín Mugarza
eta Jabí Vidal.

ARGAZKIAK:

Igone Amesti,
Ibaia Azagirre, Errotabarri
Eskubaloia, Estibalitz
González, Aitor Hernández,
Asier Ibaibarriaga,
Valentín Mugarza, Isa Prieto,
Marines Txurruka
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Olatz Loiola, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.325 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

TXIMUTXA KASKABELTZA

Carbonero común. *Parus major*



Buru beltz distiratsua eta paparreko luma hori-horien bizitasunean nabarmena goitik beherako bere gorbata beltza, ondo dotore agerrarazten duena. Soinu zorrotzeko kantu mota asko ditu eta urrunetik entzuteaz gain, etengabe aritzen da. Luma edota goroldioa erabiliz, zuloetan atontzen du habia, baina berdin egin dezake mendiko txabola baten ahaztuta dauden zapata batzuen barruko aldean. Beroa eta gozoa egiten du, haren baten txitatzen duen arrautza dozenatxo berotzeko emeak dituen zailtasunak saiheste aldera. Kume aldratxo ar eta emearen, bien artean elikatzen dute, eguneko 500 hegaldi kontabilizatzerainoko joan-etorri amai-gabean. Txori mantsoa da, pertsonaren aurrean nekez hanka egingo duena eta ugaria gure parajeotan, mendi aldera joz gero.

Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4 Elena Peirano	ERMUAN ZER? 16 Xabier Ciarsolo
ELKARRIZKETA5-7 Isa Prieto	IRITZIA 18 Jabí Vidal: 'Amorrúa'.
MALLABIAN ZER?8-9 Ainara Riveras	SALEROSKETAK 19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN..... 10-12 Euskal Birusaren ekimenak	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERREPORTAJEA 14-15 Naiara Gallastegi	KALEKO INKESTA21 Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
BOTEPRONTOAN 16 Jabí Gomez	AGENDA22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Elena Peirano

Duela 3 urte etorri zen Elena Turinetik Ermura eta dagoeneko bere denda martxan du, Nina jostundegia.

- Nongoa zara?

Turin ondoko herri txiki batekoa naiz, baina 20 urterekin Turinera joan nintzen, jantzigintza akademia batean ikasteko asmoz. Ikasten nuen bitartean jostundegi eta joskintza tailerrentzako lanean hasi nintzen eta Ermura etorri nintzenez argi nuen negozioa ipiniko nuela.

- Zer dela eta etorri zinen Ermura?

Portugalaren oporretan nengoenean Ermuko mutil bat ezagutu nuen. Elkarrekin irteten hasi ginen eta duela 3 urte erabaki genuen ni hona etortzea.

- Zer nolako herria topatzea espero zenuen?

Behin betiko etorri aurretik hainbat osteratxo egin nuen, oporretan, eta herria gustatu zitzaidan. Turin bezalako hiri erraldoi batetik herri txikira etortzea estimatu nuen, leku txikia da baina bizi-kalitate ona zuela ikusi nuen, ez zuen horrenbesteko trafikoa eta zaratarik, hiri handien hutsarteak... Hemen dena gertu dago eta giro ona dago.

- Zerk harritu zintuen hasieran?

Bitzita handiko herria dela, jendea asko irteten dela kalera, familiak, ume asko... Gauetan ere giroa dago, Italian jendea ez da horrenbeste irteten, hiri handietan irtetea oso garestia baita.



Turin, Italia

- Zertan irabazi duzu?

Hemen dauden zerbitzu batzuk oso onak dira, garraio publikoa esaterako ona da. Trena puntuala da! Italian desastre hutsa da. Bestetik, denda zabaldu nuenean nahiko arin egin nituen tramite guztiak, Itailan agiri eta paper artean zoratzekoa da ezer egitea!

- Zer da gutxien gustatzen zaizuna?

Eguraldia, eguzki falta, euria... Turin ez da Karibea, baina hau baino lehorragoa da!

- Jendeak nola hartu zaitu?

Jendearen izaera antzerakoa da. Hemen oso pertsona irekiak topatu ditut, oso kuriosoak baita, hasieran batez ere. Baina ez dut sekula arbuiorik sentitu, ez naute atzerritar sentiarazi. Ez daukat kezarik!

- Modan ere antzerakoak gara?

Italiako estiloa ekartzen saiatzen naiz, baina egia esan arropen molde-

tan ez dago alde handirik. Koloretan bai, ordea. Hemen kolore alaiak ikusten dira, Italian, batez ere dotore jantzeko orduan, jendeak tonu ilunak aukeratzen ditu.

- Italiara bueltatzen zara?

Urtean behin. lazko azaroan joan nintzen eta aurten abuztuan joatea espero dut.

- Zer botatzen duzu faltan?

Familia eta lagunak. Gaur egun kontaktuan jarraitzea erraza da, Internet bidez. Ez daukat anai-arrebarik eta gurasoak hainbatetan etorri dira bisitan.

- Hemen geratzeko asmoa duzu. Euskara ikasiko duzu?

Bai, buruan daukat beti, baina klaseak dendarekin partekatzea zaila da. Momentuz bakarrik nago eta ordu asko egin behar dut lana negozioa aurrera ateratzeko. Hala ere egin, egingo dut.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



Isa Prieto, Ermuko Ingurumen Hezkuntza Zerbitzuko arduraduna:

“Heldu kontzientziatu batek mundua alda dezake”

Soriako Burgo de Osman jaio zen Isabel Prieto ermuarra duela 44 urte. Geografian lizentziatu zen, Santanderren, eta duela 20 urte Ermuko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua martxan ipini zuen. Urteurren honekin batera erronka berriak abiatu nahi ditu. Izan ere, umeengan eragiteaz gain helduengan ere eragin nahi du. Emakume ekintzailea da, bidaiari amorratua, konprometitua. Gure sistema guztiari buelta emateko aukera izan behar dela krisia uste du, aurreiritziak baztertu eta zentzuzko kontsumora bueltatzeko parada.

- 18 urterekin Katagorri talde ekologistako kide zinen, baina Geografia ikasten zeundenean ingurumen kontuetan sakondu zenuen. Nolako oroitzapenak dituzu?

Oso onak. Ez neukan oso argi zer ikasi nahi nuen eta Geografiak mundu berri bat erakutsi zidan, inspirazioa sentitu nuen. Geografiak eta ekologiak harreman handia dutela ikusi nuen.

- Nola heldu zinen Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzura?

Duela 20 urte ingurumenak ez zuen gaur egungo pisurik, ez Euskadin ezta inguruko herrietan ere. Europan, ordea, garrantzia hartzen hasi zen ingurumen-hezkuntza eta sentsibilizazioa, bere presentzia gizartean gero eta handiagoa bihurtu zen. Nik Udalari proposamen bat egin nion: hainbat gai interesgarri aukeratu nituen irakasleek ikasleekin landu behar zituztenak, tartean birziklapena, ura eta energiaren erabilera murriztea...

- Irakasleek zerbait zekiten horren inguruan?

Ez, gaur egun etengabe entzuten ditugun gaiak dira, baina garai hartan nahiko ezezagunak ziren eta irakasleei gogorra egiten zitzaizen denetarik jakin behar izatea. Hori dela-eta, programarekin batera Udalari proposatu nion 3 edo 4 saio osagarri egingo nituzkeela.

- Zertan geratu zen hori guztia?

Gaur egun Ermuko Lehen Hezkuntzako ume guztiak programa hau lantzen dute urtero, gaia aldatuta. 10 gai ezberdin daude (hasieran 4 inguru zeuden) eta irakasleek bat aukeratu eta ikasleekin lantzen dute. Esaterako, irakasle batek hegaztiak bereiztea aukeratu dezake. Hortik abiatuta, datak adostu eta tailerrak antolatzen ditugu. Hurrengo urtean, berriz, beste gai bat aukeratu du, aldaketa klimatikoa esaterako eta horrela, ingurumenarekin zerikusia duten hainbat gai jorrazteko aukera dute 1. mailatik 6.era bitarteko umeek.

- 20 urte daramatzazu horretan jada?

Bai, autonomo moduan ibili naiz azken 20 urte hauetan, aholkulari. Beste bezero batzuk sortu zaizkit, beste Administrazio batzuk, eta horrekin jarraitzen dut. Bi urtez Berrizen egon naiz, Donostian 7 urte daramatzat, liburuak idatzi ditut, mugikortasun jasangarriari buruz ikerketak egin... Gipuzkoako Foru Aldundirako egin dut lana eta baita Ingarugiro Ministerioarentzat ere urte pare batean.

- Zure lanak eragina dauka zure eguneroko bizitzan?

Begira, geografiak harreman estua du naturarekin: geografia fisikoa, animaliak, landareak, topografia, kli-



1801eko uhodetan ura noraino heldu zen azaltzen, Ermuko Udaletxean.

ma... Baina beste alderdi bat du baita ere, gizakia: gizartea nola antolatuta dagoen, ekonomia... Hori dela-eta, bidaiatzen hasi nintzen eta gaur egun bidaiari amorratua naiz. Erdialdeko Amerika eta Hego Amerika nahiko ondo ezagutzen ditut, Laos, Kanbodia, Vietnam, Tailandia, India, Txina, Japon, Kanada, Swazilandia, Hegoafrika... Doktoretza egiteko urtebete igaro nuen Italian, Modenan. Horren ostean Ermuan italiara irakasle egon nintzen garai batean. Denetik egin dut!

- Zein da egin dituzun bidaiak guzti horien helburua?

Kanpoan zer dagoen ezaugaritzea da nire helburua, aurreiritziak kentzea, begirada ezberdina izatea. Motxilarekin joan naiz leku guztietara, aterpetxez aterpetxe, eta honek inprobisatzeko aukera ematen dizu.

- Bisitatu dituzun leku guztiak gustatu zaizkizu?

Bai, guztiak dituztelako gauza interesgarriak ikusteko. Baina ikusi dudak guztia ez zait gustatu, India, esaterako, oso gogorra egin zitzaidan, Honduras ere, Hegoafrika... Batzuetan beldurra sentitzen duzu eta beste batzuetan txundituta gertatzen zara, baina leku guztietan gauzak ikasten dituzu. Erlatibizatzen ere ikasten da.

- Zuzenean ikusitakoak ahaztea zailagoa izaten da, ezta?

Bai, eta gauza bera gertatzen da umeekin eta Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuekin. Umeei gauzak kontatzen badizkiezu segituan ahaztuko dituzte; erreka ikustera eraman behar dituzu edo ornogabeak topatzera... horrela ez dute sekula ahaztuko. Ingurunea

“Umeei ingurumena hurbildu behar zaie, esperientziak sortarazi. Ez dute sekula ahaztuko!”



Drogeteniturrri, 208 zkia.



Ainara Riveras:

“Lora esentzia bakotzak bere ezaugarrixe deko eta hartuz gero, pertsonak berez dittun norbere gaitasunek indartzen ditu”

Eibarren jaiota, gazte zala Ermure juen zan bizitzera. 3 urte die Mallabixen bizidala. Ainara, ‘Hirutasun Esentziak®’ izeneko lore terapia alorrien dabil lanien.

- Lora esentzien inguruen zabizela jakin dogu. Kontaiguzu apurtxo bat...

‘Hirutasun Esentziak®’ lehenengo aldiz gure mendixetako loriekin egindako lore esentzia terapeutikuek die eta erabiltzen dan elaboraziño metodue be erabat barrixe da. Naturak, kasu honetan be, gure lurretako loren bidez, gordeta deuken jaktitxirixie gure barruetara bueltatzie ahalbidetzen dau. Honen sortzaillie Carmen Romanelli terapeuta eta kinesiologa durangarra da. ‘Hirutasun Esentziak®’ 17 lora esentziak eta Erremedio Bitalak osatzen dabe. **- Zertarako erabiltzen die lore esentzia hauek?**

Lora esentzia bakotzak bere ezaugarrixe deko eta hartuz gero, pertsonak berez dittun norbere gaitasunak indartzen ditu. Gorputzan energia ariñenetan eragitten dabe. Emozioñuen, min fisikuen, azken batién, gertatzen jakun sorburure doiez. Hau da, triste banago, tristura hori sortarazten daben arrazoire doie eta jatorrixie orekatzen dabe, lore bakotzak berak deuken

ezaugarrixe emonda. Bizitzan beti gagoz prozesu ezberdiñek bizitzen. Eta askotan prozesu horrek digeritu eta onartzie kostatzen jaku. Urteik aurrera egin ahala, prozesu horrek enkistatute geratzen die eta askotan somatizau egitten dogu. Esentzia honekin egoera estankau horrek askatzie lortzen

da eta norbera dan moduen hobeto ezagutzen eta eboluzionatzen laguntzen dabe. Hobekuntza oso ariñe da.

- Esentzien adibiderik jar-tzearren... Zer-zertarako?

Arbejina heldutze prozesuetarako da. Haurrentzako oso ondo doie, bitalidade, enfoke eta perseberantzia faltan, hiperaktibitate, dislexia... bezalakuetarako, adibidez. Armeria Maritima rezeptibidaderako da. Bizitzan kontuegaittik izten diennedako da. Haurdun geratzeko zailtasunek dittuzten emakumientzako be oso

ona. Taraxacumak min fisikue eta emozionala soltatzien dau eta, adibidez, ia min bako erditziek lortzen die. Salbiak sexualitatziaz deuke zerikusixe eta Escaramujuek itxaropen faltakin. Holan, esentzia bakoitzak bere gizarte esparrue deko, eta horretan eragiten dau.

- Zelan dakizu pertsona bakotzak dauken beharra?

Lan personalizatue egitte aldera, kinesiologia bidez edo biotentsorie erabilitte, pertsonak behar daben esentzia zein dan ikusten dogu. Kinesiologiarekin test



IZOTZ
IZOZTUAK



ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

- Sagardotegiak, ezkontzak, jaiotzak, Errioxa, elurra, bidaia turistikoak...
- Profesionalak gara lantegietara, eskoletara eta kirol taldeak eramaten.



ALCONADA
autobusak
610 28 39 39
busalconada@gmail.com

Preziorik onenean egingo dizugu aurrekontua

Eskaintza bereziak!

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

muskularra egitten dugu eta biotentsoriek pertsonan kanpo energetikue neurtzen dau. Edonork hartu leikez (haurrek, nagusixek, haurdun dagozen emakumiek ea.) eta animaliekin be emaitza oso onak lortzen die. Beste edozein medikuntza mota, tratamendu edo lan terapeutiko potentziatzen dabe. Osagarriek die.

- Zelan izen zendun lore esentzion barri?

Oin dala sei bat urte, lagun batek gomendatute Carmenengana jueten hasi nintzen. Beragaz lan pertsonal bat egitten hasi nintzen. Harrittute geratu nintzen zelan hain era natural eta sinpliekin jendiai bere burue ezagutzen, sendotzen eta indartzen lagundu ahal jakon, bere bidie aurrera egitten jarraitzeko. Nire burue hobeto ezagutu neban eta apurke-apurke saltsa honetan sartu nintzen. Carmenen lanan barri euki nebanien, oin dala pare bat urte, lore esentzia eta lan metodo terapeutiko honen

inguruko lehenengo ikastarue egin neban, 'Hirutasun Esentziak®'. Bat Izatearen Metodo®' izenekue. Gero, berakin proiektu honetan lanien hasi nintzen.

- Zer da egitten dozu-ne?

Batez be, lore esentzia honek ezagutera emoten dittut eta kontsulta lana be egitten dot. Formatzen be jarraitzen dot: ikastaruetara jueten naz eta egitten doten kontsulta lanetan be, egitten ikasten noielako.

- Zurekin harremanetan jartzeko?

Bi aukera dagoz. Batetik, 'Hirutasun Esentziak®', batez be, profesionalki, lan mundure begire ezagutu nahi dabenentzako. Eta bestetik, lan terapeutiko pertsonala egin nahi dabenentzako. Nire zenbakixe 607 835 051 da. Gai honen inguruko informaziño gehixa www.esencias-triunidad.com helbidien daukeuzue eskuragarri.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

GAZTE TALDIAN EKINTZA MARTXAN

Mallabiko Gazte Taldie herri honetan dauezan gabezi edo arazuek onduen islatuko dittuen argazkixan bille dabil eta horretarako, argazki lehiaketa bat antolatuko dau. Honekin herrixen zer arazo dauezan konturatu eta etorkizunien zer egin leiken aztertzie gure dau taldiek. Herrikuen aurkeztuko die lanak urtarrilan 31 aurretik. Argazkixe sobre baten barruen sartute egon biher da eta honekin batera izenburue, izen-abizenak eta telefonue papel baten idatzitte egon biherko die. Otsailan 1etik 9re ikusgai izengo doguz lanok Herrikuen eta herri bozketaz erabakiko da irabazlie zein izengo dan. Bi pertsonantzako afarixe izengo da sarixe, Herrikuen. Horrez gain, beste bi ekintza be antolatu dittu Gazte Taldiek. Alde batetik 'Gazte Zati Bat' dokumentala egongo da ikusgai urtarrilan 27xen Izar Gorri elkartien, arratsaldeko 7retan. Eta beste aldetik, sagardotegire urteerie be prestatu dabe martxuan 2reko. Interesa daukenak Herriko eta Bastida tabernetan emon leike izena otsailan 1etik 18re. Apuntatzerakuen autobuserako 10€ ordaindu biherko da.

FRONTENIS TXAPELKETA

Mallabiko Futbito taldiek antolatzen daben frontenis txapelketarako izena emoteko epie zabalik dago otsailan 10era arte. Buruz buruko lehia izengo da eta otsaila eta maiatza artien jokatu da. Maillaka izengo da eta hasiera baten 8-10 pertsonako taldiek igotze eta jeistiekin liga jokatu dabe. Finaleko fasie kanporaketa erara egingo da. Jokalari bakotzak gitxienez 8 partidu jokatu dauz. Izena emotie 8€ izengo da eta jokatutako partidu bakotxeko €1 bazkidiek eta 2€ bazkide ez dienek ordaindu biherko dabe. Informaziño gehixaureko 669028718 telefonora deittu.

NEGOZIAZIÑUEK MECANICAS MALLABIN

Alfa taldian barruen dauen Mallabiko enpresa honetan zuzendartzie 147 langiletik 47 kaleratuko dittun plana aurkeztu eban. Hille honetan ziher mobilizaziñuek egin dittue langilliek. Momentu honetan arazuai irtenbidie emoteko negoziaziñuetan dabiz.



Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

J. LUCAS
PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

MUGA

KOKOIK

San Pelaio 4A behe
Telefona: 17 64 77
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€),
menua bokatak,
plater konbinatuak,
pintxoak, kazolak,
arraina eta txuleta
parrillan (enkarguz)...

943 174 952
(asteartetan itxita)

ERROTABARRIKO HAINBAT JOKALARIK ZILARREZKO DOMINA JASO DUTE EUSKADIKO SELEKZIOAREKIN



Eli de la Cruz, Yaiza Rico, Sheila Fernández, Luisa Castro eta Arantza Moreno eskubaloiko jokalaririk Euskadiko selekzioarekin aritu dira Espainiako Txapelketan, jubenilen kategorian. Urtarrilaren hasieran jokatu ziren partiduetan, Euskadikoek bigarren postua lortu zuten. Beste kategoriei dagokionez, Cristina Vivar eta Alaitz Fernandez kadeteekin aritu dira eta Jone Izquierdo infantiletan.

EMAKUMEAREN TOPALEKUAK EGITARAU BERRIA KALERATU DU

Urtarrila eta martxoaren bitartean burutuko dituen ikastaroen berri eman du Emakumearen Topalekuak, Jabekuntza Eskolaren baitan. Otsailaren 7tik martxoaren 14ra 'Zoru pelbiko' ikastaroa egingo da; urtarrilaren 22tik otsailaren 26an 'Hausnartzeko denbora' eta otsailaren 23an 'Autodefentsa feminista'. Ikastaroek 5€ euroko prezioa dute eta parte hartu nahi dutenek zfernandez@udalermua.net helbidera idatzi edo 943171030 telefonora deitu dezakete.

Aitor Hernándezek Espainiako txapelketa irabazi du

Abenduko Drogeteniturrin irakurri zitekeen moduan, Aitor Hernández txirrindulari ermuarra denboraldi bikaina burutzen ari da ziklo-krosean. Urtarrilaren 13an, Asturiasko Navian egin zen lasterketan, Espainiako txapelketa eskuratzea lortu zuela da horren adierazle garbia. Bere areririk indartsuenei, Egoitz Murgoitiori eta Javier Ruiz de Larrinagari, 17 eta 19 segundo atera zizkien hurrenez hurren. Honekin 17 garaipen lortu ditu 2012-2013 denboraldian. Zorionak txapeladun!



Euskal Birusak hainbat ekimen burutuko ditu otsailean

D EREDUAREN ALDEKO KANPAINA

2 eta 3 urte bitarteko umeen aurre-matrikulazio garaia dela eta, D ereduaren aldeko kanpaina ipini du martxan hirugarren urtez Euskal Birusa Euskara Elkarteak. "Matrikulatu D ereduaren. Gaur egun gehien euskalduntzen duen eskola eredu delako" leloa daramaten idatziak ipiniko dira herriko peora guztietan.



ERMUAN KANTUAN

Urtarrilaren 26an, Ermuan Kantuan saioko edizio berria egingo da. Beti bezala, 12.30ean irtengo da plazatik baina, aurtan, ekimen honek berrikuntzak izango ditu. Jendearen parte hartzea sustatu nahian, hilabete bakoitzean talde edo elkarte bat gonbidatuko du Euskal Birusak. Urtarrileko kantu kalejiran Euskal Birusako kideak izango dira; otsailean, eta Korrika 2013ren omenduak izanik, AEKko ikasleak gonbidatuko ditu Euskal Birusak.

HARTZA EGUNA

Otsailaren 8an, Eguen Zuri biharamunean, Hartzza Eguna ospatuko da. 18.00etan irtengo da kalejira plazatik, Alboka Musika Eskolako trikitilariak lagunduta, eta kaleetan barrena hartzzarekin batera Hartzaren Koplak abesteko aukera izango dute nahi duten guztiek. Bukatutakoan 200 bokadilo banatuko dira plazan. 1991. urtean berreskuratu zuen Euskal Birusa elkarteak ohitura zahar hau eta antolaketan bere alboan du Kaltxango AEK Euskaltegia, Udal Euskaltegia, Eskolabarri, Anaitasuna Ikastola eta Alboka Musika Eskola.



BERBETAN JARDUNALDIAK - BATZAR OROKORA

Era berean, otsaila eta martxoaren burutuko diren Berbetan Jardunaldiak eta urteko Batzar Orokorra prestatzen dihardu Elkarteak.

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

MENDIOLA

Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

Etorri gure
instalazio berriak
ikustera!!

Akerlei

idiomas

Formigalen, Neguan elurra esaten da,
Udan **English Fun** esaten da.

2013ko
ekainaren
30etik
uztailaren
13ra

English experience



Zure seme-alaben oporrak prestatu dituzu?

Interesatuko zaizun
proposamena daukagu

8 eta 15 urte bitarteko umeentzat

INGELESEZKO ESKOLAK, mendi-ibilaldi interpretatiboak,
txangoak, igerilekua, arborismoa, tailerrak,
gau-jaiak, diskoteka, orientazio gymkana,
izarren gaua eta askoz ere gehiago.



Giro segurua eta ona,
ikaskideen arteko integrazioa eta elkarren
arteko ulermena sustatzen duten heziketa helburuekin.

Helburuak


- Ingelesa bizitzea jolas, ekintza kultural eta kirolaren bitartez.
- Ume eta gazteak ingurugirora hurbiltzea, bere baloreak eta heziketa izaera konpartituz, "Errespetatzen ikastea".
- Dibertsioa, laguntasuna eta elkartasuna sustatzea.
- Dibertsioa eta relaxa naturaren erritmoekin bat eginez oporrak igarotzeko.
- Parte-hartze aktiboa bultzatzea, talde-jarduerak, jolasak eta ikasketak konpartituz.



Non?

Tenako bailaran, Aragoiko Pirinioetako inguru txundigarrienetarikoa: Formigal, leku seguru eta bakarra, 1550mko garaiera duena eta Frantziako mugan dagoen El Portalet-etik kilometro gutxira dagoena. Formigalen denbora eten egiten da, topera disfrutatu ahal izateko. Mendiak, palsaia berdeak eta bideak betiko gogoratuko dituzun bazterretara eramango zaituzte, non natura beti den magia guztiaren protagonista.
BIZI EZAZU!

Ekainaren 30etik
uztailaren 13ra
1045,00 €



Bizitza beste hizkuntza batean proba ezazu!



Bizkaia etorbidea 5
48260 - Ermua
943 17 66 32
akerlei@akerlei.com

UDALTZAINGOARI UDALETXEKO BEHEKO SOLAIRU OSOA EGOKITU ZAIO

Hainbat lan burutu ostean, Ermuko udaltzainek udaletxearen beheko solairu osoa hartu dute. Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara bitartean, sartu eta ezkeraldean dagoen bulegoan eskainiko dute arreta. Orduetegi horretatik kanpo, 943 17 63 00 telefonora deitu beharko da.

GABONETAKO MAHAI APAINGARRIEN 1. LEHIAKETAK 780 EURO BATU DITU

Ermuko Minbiziaren Kontrako Elkartek antolatu duen lehiaketa honetara 75 lan aurkeztu dira. Horiek 3 egunez egon ziren ikusgai Lobianon eta horietatik 65 saldu egin ziren, 12 eurotan. Ikerketarako eta elkarrearen ekimenak aurrera eramateko erabiliko da jasotako dirua. Elkarteko kideek ez zuten espero horrenbeste lagunek parte hartzea eta datorren urtean bigarren edizioa burutzeko prest daude.

DEBEGESA INDUSTRIAREKIN

Debegesak Debabarreneko sektore industrialaren aldeko lana egiten jarraituko du 2013an ere, enpresa industrialen aldeko konpromisoa berretsiz. Besteak beste, eskualdeko enpresekin jarriko dira egunotan harremanetan, haien premiak ezagutzeko eta 'Enpresen Gida' birtuala eguneratuko dute.

Ermuko Merkatarie eta Ostalarien elkarteak datozen hilabeteetarako ekimenak prestatzen dihardu

Kalean ikusi daitezkeen lonekin batera, hainbat ekimen ipiniko dituzte martxan herriko merkatariek. Otsailean Aukeren Azoka egingo dute eta martxoan, berrikuntzez beteriko Udaberriko Jaia antolatuko dute. Ekimen horien bitartez, garai txar honetan bezeroak leialdu nahi dituzte merkatariek, EMOEko lehendakari den David Gómezen esanetan. Aipatutako ekimen horiek, Gabonak baino lehen egin zirenen jarraipena dira. Orduan, 120 txerri beso eta 500 euroko 7 txeke zozketatu ziren.



Altermuatiba taldea sortu da Ermuan

Duela hilabete batzuk herriko hainbat lagun biltzen hasi zen Lobianon. Euren helburua herrian eragitea da eta euren esanetan "herriko baliabide eta ahalmenak bideratu nahi dituzte, herriaren garapenean eragiteko helburuarekin".

Euren burua ezagutzera emateko 'Desjabetze eta Fracking-ari buruzko I. Jardunaldiak' egingo dituzte hilabete honetan. Astelehenean, hilak 21, Stop Desahucios-ek hitzaldia eskaini zuen Lobianon; asteazkenean, hilak 23, Fracking edo Haustura hidraulikoaren gaineko hitzaldia egingo da Plataforma Fracking No Bizkaiaren eskutik eta ostiralean, hilak 25, Josh Fox-en 'Gasland' dokumentala ikusteko aukera egongo da.



Elkartasun Tonbolak 9.800 euro banatu ditu aurten

Urtero antolatzen den Elkartasun Tonbolak 9.846 euro jaso ditu aurten eta diru kopuru hori ondorengo elkartasun proiektuen artean banatu da: Iñaki Peña eta German Saez de Zaitegi (Peru), Hortensia Perosanz (Senegal) eta Garbiñe Esturo eta Niko Urreta (Txile). Gainera aurten, lehen aldiz, Ermuko Caritasi eman zaio jasotakoaren zati bat, "herrian ere jende asko gorriak pasatzen ari delako", Tonbolaren arduradun diren emakume boluntarioen arabera. Aurtengo Tonbola abenduaren 15ean zabaldu zen, Horacio jantzi-denda izandakoan (Torrekua kalean), eta antolatzaileek uste baino arinago saldu zituzten txartel guztiak. Guztira 200 sari banatu dituzte, parte hartzaile guztien artean zozketatzen diren 3 sari potoloez gain. Sari potolo hauek neskarentzako baserritar jantzia (argazkian, Borja Rodríguez irabazlea), eskuz egindako manteleria eta bizikleta izan dira. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie Horacio jantzi-denda zenaren lokalaren jabeei, dendariei eta txartelak erosi dituztenei.



Drogeteniturrri, 208 zkia.

Arinka
Ume eta gazteentzako
zapata-denda...

40ra arteko zkiak ditugu

Orbe kardinalaren plaza 8, behea
ERMUA - Bizkaia / 943 17 41 26

SEHIGA

LAN-BABESA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454 / Fax: 943 033 821
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN
HASTEN DIREN AMETSAK.

“GIZARTEAREN
GARAPENEAN LAGUNTZEKO
IKERLARI IZAN NAHI NUEN
ETA UNIBERTSITATEAK
ATEAK IREKI DIZKIT.”

Alaitz Zabala, Biomaterialen
ikerketa lerroko ikerlaria.

PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

GOIERRI · **URTARRILAK 24** osteguna, 17:30

ARRASATE · **OTSAILAK 2** larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI · **OTSAILAK 2** larunbata, 11:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA · **OTSAILAK 2** larunbata, 11:00

ARETXABALETA · **OTSAILAK 2** larunbata, 11:00

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



Naiara Gallastegi, irakaslea: “Ekuadorreko eskolak hemengo 50. hamarkadako eskolarekin antz handia du”

24 urteko ermuarra. Haur Hezkuntza eta Psikopedagogia ikasketak burututa, ‘Euskadiko Gazteak Lankidetzan’ programan izena eman eta Ekuadorren hiru hilabete eman ditu beste bi gazteekin batera bere ezagutzak partekatzen. Esperientzia ahaztezina bizi duela onartzen du.

- Nolatan animatu zinen abentura hau bizitzera?

Aspalditik nahi nuen kooperazio lana egin. Indiarra joan nahi nuen hasieran, baina horretarako Ingelesa jakitea ezinbestekoa da. Gure laguntza edozein tokitan beharrezkoa dela ikusita programa honetan eman nuen izena, izan ere ez dizute herrialdea hautatzeko aukerarik ematen.

- Zein da programa honen helburua?

Hara profesional lanak eskaintzera bagoaz ere, helburu nagusia ez da laguntza ematea baizik eta bertako egoerarekin sensible izatea, behaketa egitea eta hemen sensibilizazio kanpainak egitea. Han kooperante bategen hiru hilabetetan eman dezakeen laguntza oso txikia da daukaten beharrek konparatzen baduzu. Aldiz, hara joan eta esperientzia hori bizi ondoren jasotzen duzuna askoz handiagoa da.

- Ekuadorreko zein tokitan egon zara?

Emaús Fe y Alegría eskolan egon naiz, Quitoko hiriburuko hegoaldean dagoen auzo txiroenetako batean, La Pio XII.

- Nola bizi dira?

Esan bezala, hegoaldea hiriburuko zonalde txiroena da. Familiek ez dute oreka ekonomikorik eta etxeetan asko bizi izaten dira. Familia osoak bizi ohi dira: erraza da hamar lagun baino gehiago bizitzea etxe bakarrean.

- Non egiten zenuten lo?

Eskola barruan zegoen etxe batean bizi ginen hirurak bertako mojekin, Ahizpa Pasionistekin. Esan behar dut aurreiritzi askorekin joan nintzela, baina atseginak ziren, ez zuten sinismenik inposatzen eta momentu atseginak pasa genituen beraienkin.

- Zer eskola mota da?

Itunpeko eskola. Hala ere, Hermanas Pasionarias Irunen duen kongregazioaren bidez eta hemengo familiek lagunduta dirua jasotzen dute ume gehienek eskolako gastuak ordaintzeko.

- Zein zen zure egitekoa han?

Kurtsuan zehar zailtasun gehien dituzten ikasleei Lengua Castellana eta Matematikako mailaketa klaseak ematea.

- Zertan zetzan lan hori?



Kurtsoko helburuak lortu ez zituzten ikasleei laguntzen saiatzen ginen beren gelakideen erritmoa har zezaten, hurrengo kurtsuan oztupo gutxiago izateko Ekuadorren gobernuak ez baitu lagatzen kurtsorik errepikatzen.

- Ez zen lan erraza izango...

Ez, iritsi ginenean zatiketa, biderketa eta zatiki moduko eragiketarako erakusteko eskatu ziguten bertako irakasleek, baina berehala konturatu ginen gehienek oinarriko gabeziak zituztela: batuketak eta kenketak kostata egiten zituzten eta irakurmenean ere arazo handiak zituzten. Beraz, oinarritik hastea erabaki genuen eta programa birmoldatu

behar izan genuen. Hala ere, zailena ikasleei behar zuten arreta eskaintzea izan zen, 40 ikasle zirelako batezbeste gela bakoitzean.

- Alde handia, beraz, gure eskolekiko.

Bai. Hasteko, han irakaslea ez dago batere balortua. Titulua Batxilergo berezi bat egiten lortzen da, beraz irakasleek dituzten ezagutzak eta baliabideak oso mugatuak dira. Horrez gain, oso soldata baxua dute beste lanpostu bazuekin konparatuz, 260 dolar ingurukoa. Bertako eskola batean hemen 50. hamarkadan edozein eskolatan ikusten zena ikusenezake egunerorik.

- Zertan atzeman zenuen hori?

Disziplina handia zegoen

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

eta umeez errespetu handiz tratatzen zituzten irakasleak, oso harreman hotza zegoen irakasle eta ikasleen artean. Irakasteko modua ere oso tradizionala zen eta jolas edo kantuak gela barruan pentsaezinak dira. Pentsa! Ereserkia egunero kantatzen zen.

- Irakasteko metodologia aldatu zenuten zuek?

Bai, jolasak eta kantuak erabiltzen genituen eta ikasleak ahozabalik geratzen ziren. Hala ere, erraz egokitu ziren horrelako ekintzetara. Aipagarria da urtebetetzerik

ez zutela ospatzen eskolan, han geundela egin genuen eta ikustekoak ziren haien poztasun aurpegiak!

- Laguntza handia eskaini duzue beraz.

Saiatu gara, baina laguntza akademiko eskaini baino maitasuna eman genien. Oso baldintza zailetan bizi diren gazteak dira eta oreka emozionala ematea zen guretzat garrantzitsua. Esan beharra dago guk haiengandik afektu asko jaso dugula.

- Zeintzuk izan dira ikusi dituzun zailtasunak?

Adin txikikoek tratatu txarrak jasotzea oso arrunta da, gizarteak normaltzat hartzen ditu. Adibidez, haur bat gerrikoarekin jotzea guztiz normala da han. Umeek gabezia afektibo handiak dituzte, gabezia horiekin batera areagotzen dira

arazo akademikoak. Bestalde, emakumeenganako indarkeria ere oso ohikoa da.

- Gozatzeko aukera ere izango zenuten.

Bai, asteburuetan Ekuadorreko leku desberdinak ikustera joaten ginen eta asko harritu ninduen Ekuadorrek duen dibertsitatea. Ekuador hiru zonaldetan banatzen da eta hirurak ezagutu ditut: Alde batetik, Ekialdeko Amazonas Oihana. Bertan El Poyo izeneko hiria bisitatu nuen eta bertako indigenak ezagutu. Klima tropikala da eta hezetasun eta bero handia egiten du. Bestalde, erdialdean Andeak daude eta han ere bertako indigenak ezagutu genituen eta bertako merkatu handiak ikusi, Otavalo eta Zumbahua-koak zehazki. Alpakak, llamak eta horrelako animaliak ikusteko aukera izan ge-

nuen merkatuetan. Eta azkenik, kostaldea. Zona tropikala da eta bertan Afrikatik ekarritako esklabuen ondorengoak bizi dira. Bertako paisaia banbuz egindako etxeek eta hondartzek osatzen dute.

- Abenturaz jositako esperientziak izango ziren.

Bai, furgonetako atzeko aldean bidaiatzen genuen eta lotarako ere bertako biztanleei eskatzen genien ostatu. Ez dira bidaia turistikoak izan bertako errealitatea ezagutu nahi genuelako. Bidaia luzeak izan dira, Ekuador txikia izan arren bertako azpiegiturak oso eskasak direlako.

- Zertarako balio izan dizu horrelako esperientziak?

Hemen ditugun gauza guztiak baloratzeke. Esate baterako: etxetik beldur gabe irtetzea, txorrota ireki eta ur edangarria irtetzea... Hemen behar duguna baino gehiago dugu eta han oso baliabide gutxirekin moldatzen ikasten duzu.

Ane Sáenz



ALBOKA

MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PRODUCTOS
SELECTOS

URDAITEGIA - CHARCUTERIA

MAYTE

Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA

Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

TALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGYAK
943 030 299

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

He-apaindegi bat baino gehiago!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

J A B I G O M E Z

- Nola oroitzen duzu zure gaztaroa?

Garai onak izan ziren. Gaztaro arrunta izan nuen, lagunarteko garaiak datozkit gogora.

- Ikasketarik?

Aurrena Ermuan egon nintzen eta ondoren Eibarrera joan nintzen, Armeria Eskolan Mekanika ikasketak egin nituen.

- Lanean noiz hasi zinen?

17 urte nituela Orbean hasi eta ondoren Watt-era pasa nintzen. 12 urte igaro dira jada.

- Ez dituzue garai gozoak bizi...

Azken hilabeteak oso gorrak izaten ari dira. Zuzendaritzarekin bilerak, kanporatzeak. LAB-ek sindikatu gisa eta nik Jabi moduan beti lanpostuak defendatu izan ditugu baina argi genuen arazo bat zegoela, denontzako ez zela lanik. Ahalegindu gara kaleratu dituztenak egoera hoberean izan dezaten.

- Garai bateko 'manifa' eta borrokarako grina eza sumatzen dituzu?

Eratat. Ermuan bertan 1.500 langabetu daude eta ez dira kalean nabari. Hori larria da!

- Nola lasaitzen duzu zure burua?

Nire umeekin nagoenean. Hori da botikarik onena.

- Non ezagutu zenuen zure bikotea?

Gabon zahar eguna zen eta Zappa tabernan ezagutu genuen elkar.



Ermuan jaioa duela 32 urte. 2 anaien artean zaharrena. Seme eta alaba baten aita. Sindikalgintza munduan murgildua, LABeko ordezkaria Watt Direcciones enpresan. Ez ditu garai gozoak bizi izan azkenaldian.

- Maitasunari eusteko zure errezeta?

Errespetua eta konfiantza.

- Musika...

Punky-a, rock-a eta heavy-a gustatzen zaizkit. Su ta Gar edo Kaotiko, adibidez.

- Eguneko zure momentua?

Gauean umeak oheratu eta sofán lasai nagoenean.

- Jateko gogorik?

Txuleta edo arrautzak patata frijituekin.

- Ermuan zeren falta nabari duzu?

Euskararen inguruko ekin-tza eta ekitaldi gehiago.

- Nahi bai baina egin gabeko hori?

Familiarekin bidaia bat egitea beste herrialde batera, beste kultura batzuk ere ezagutzeko. Eta motor zalea naizenez, moto batekin mundua ezagutzeko aukera izatea.

- Gabonak?

Familiarekin lasai eta gozo egoteko onak.

- Olentzerok zer ekarri diuzu?

Kantzontziloak, nikiren bat... arropak.

- Berriz jaioko bazina...

Gehiago ikasiko nuke, Mekanikarekin zerikusia duen karreraren bat.

- Realzale amorratua zara...

Umetatik. Garai batean bazkide ere izan nintzen eta Anoetan sarritan izana naiz.

- Hobbiren bat?

Motor zalea naiz. Motoak zein autoak. Musika ere asko gustatzen zait...

- Lagun bati zer eskatzen diozu?

Onean eta txarrean hor egotea.

- Mendi bat?

Aizkorri edo Anboto.

- Bizitzak zer irakatsi diuzu?

Danak daukagula zeresana eta horregatik ona dela harremanak lantzea eta ezberdin pentsatzen dutenekin ere egotea.

- 2013ari zer eskatzen diozu?

Bai niretzako eta besteen-tzako lana.

- Euskal Herriko egoera politikoaz zer diozu?

Aldaketak egon dira, baina oraindik bidaia luzea daukagu aldaketa sozialki eta politikoki emateko. Horretarako independentzia eta sozialismoa behar ditugu. Presoen egoera ere ea aldatzen dugun.

- Besterik?

Bihotzez eskertu nahi nioke LABeko zonaldeko arduraduna den Mari Eliri egindako lana eta eskaini digun laguntza.

Asier Ibaibarriaga



**CITROËN
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, 18 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



**SAGARDUI
poltsak**

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



D. ARRAL 97 S.L.
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892
arral@arral97.com
www.arral97.com

Ardo banatzailea:
Luis Cañas
Cantosán Verdejo
Viña 65 Verdejo
Amaren
Añada Real
Cava Oriol Rosell
Nitida
Montepinos

Xabier Ciarsolo, argazkilaria:

“Nire argazki guztietan kresala agertzen da”

Urtarrilaren 21etik otsailaren 3ra bitartean Xabier Ciarsolo ermurrak ateratako argazkien erakusketa egongo da Lobianon ikusgai. 37 urteko ermuar honek ikastolako jantokian egiten du lana, ezkertia da eta denbora librean margoa eta argazkilaritza ditu gustuko.

- Nola bururatu zaizu argazki erakusketa egitea?

Duela pare bat urte hasi nintzen argazkigintzan, nahiz eta betidanik izan dudana gustuko. Lobianon egin diren erakusketa guzti-guztiak ikusi ditut: Klemente Correderearen argazkiak, Markos Gimenoarenak... Udaletxeari proposatu nion zuzenean erakusketa egitea, ezetza banuen-eta! Mezua bidali eta hurrengo goizean baietza eman zidaten.

- 26 argazki egongo dira ikusgai, Orion ateratakoak guztiak. Zergatik aukeratu duzu Orio?

Bertan igarotzen ditut udak eta itsasoa gustatzen zait. Nire koadroetan ere itsasontzi eta itsasoa margotzen ditut.

- Bi gauza horiek zure argazki guztietan ikus daitezke?

Ez, guztietan ez, bai ordea kresala edo ugerra.

- Argazkiak zuri-beltzean daude. Zuk erretokatu dituzu?

Bai, baina erretoke digitalaren esparruan asko daukat oraindik ikasteko eta Lanbidek antolatzen duen ikastaro bat egiteko asmoa dut.

- Argazkiak ateratzeko ekipo majoa izango duzu, ezta?

Jende guztiak galdetzen dit! Tira, Nikon D3000 bat daukat, reflexa. Kamera honen nik neurtu eta enfokatu behar dut, badaude kamera batzuk zoom automatikoarekin, baina horrek ez zaizkit gustatzen. Gainera laster ‘gran angularra’ erosiiko dut.

- Zenbat denbora eman duzu argazki hauek ateratzeko?

Argazkiak atera baino egun batzuk lehenago, atera nahi nuena aukeratu nuen. Jarraian, lau egunetan, argazkiak atera nituen. Erakusketaren diptikoan agertzen den argazkia ateratzeko, olatuarena, itsasoa zakar zegoen egunera arte itxaron behar izan nuen. Hondartzara toalla, kamera eta autodefinido batzuekin joaten nintzen...

- Lan handia eman dizute irudi hauek?

Egia da argazki batzuek lan handia ematen dutela. Erakusketa honetan kalatxori bat agertzen da, itsasontziatik botatzen dituzten atun hegialak eta horrelakoak ha-



rrapatu nahian. Txoria mugimenduan zegoenez, argazki ona ateratzeko, klas - klas - klas, hamaika argazki atera behar izan nituen, ordu laurden inguru emango nuen!

- Erakusketa bat egiteko, argazki kopuru minimorik badago?

Ez, baina ‘karton pluman’ ipintzeak kostu handia du eta ezin dituzu nahi beste ipini.

- Argazkigintzan bi urte daramatzazu. Argazki asko egin dituzu?

Bai, argazki mordo daukat etxeko ordenagailuan gordeta: San Martin, plazan antolatzen diren kontuak, aurtun desastrea izan diren Erregeak.... Leku guztietara joan eta argazkia ateratzen dut.

- Zer esaten dizute ingurukoek zure lanei buruz?

Bakoitzak bere gustuak ditu, baina gehienei gustatzen zaizkie.

- Hau ez da zure lehen erakusketa, ezta?

Ez, Teresa Murgan margo erakusketa egin nuen eta Lobianon beste bi egin ditut: bat nik bakarrik eta bestea lagun batekin.

- Margo eta argazkilaritzan dakizun guztia zure kabuz ikasi duzu?

Ia dena, margo ikastaro batean egon nintzelako. Hala ere, nire konposaketak egitea gustatu izan zait beti, kopiatu beharrean.

- Aukeratzekotan, margoa edo argazkiak?

Margoa, gehiago disfrutatzen dut. Argazkiek betoa ipintzen dizute, ikusten duzuna baino ezin duzu atera.

Dorleta Vidal

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

PUB YOMY



**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

Amorrua

Itxitako enpresak, kaleratutako langileak, ERE-ak, grebak... Lan erreformak baimenduta, jende askoren eguneroko bizitza aldatzen eta hondatzen ari da, eta gauza guztiekin gertatzen den moduan, arazoa aurrez aurre ikusi arte, zaila izaten da haren larritasunaz ohar-tzea.

Gure inguruko langile asko kaleratzeko bidea irekita dago eta erraza da egoera larri horretan dagoen norbait ezagutzea. Askok ezagutzen ditugu. Eta arazoari aurpegia jartzean, haien begietan lo egin gabeko zenbat gau igarotzen ari diren ikustean, norberak ez du penarik sentitzen, amorrua baizik.

Amorrua monarkiarekin zerikusia duen guztia ikustean, amorrua hainbeste lagun langabezia ikustean, amorrua politikarien az-

pijokoa ikustean eta amorrua Kuktza bota zuen alkatea munduko alkaterik onena izendatu dutela ikustean.

Nik gutxi dakit ekonomiaz eta ezagutzen dudun 'prima de riesgo' bakarra Osasuna taldeko atezainaren lehengusina bat da. Bizi dugun krisi ekonomikoaren aurrean gauza bakarra dakit: bizitza guztian enpresa batean lanean egon den pertsona gauetik egunera halako erraztasunez kaleratu ahal izatea ezin dela bidezkoa izan. Zerbitzu publikoetan lan egiten dutenei gabonetako lan-saria kentzea edo soldata jaitea hain erraz ezin zaiela hain merke atera. Etxe-kaleratzeak egunero ikustea bankuak izugarrizko dirutza irabazten duen bitartean ezin dela bidezkoa izan. Etorकिन kontrako iritziak entzutea, krisia euren errua izango balitz bezala, ezin dudala gehiago jasan.



Jabi Vidal

Badakit dena ez dela zuria edo beltza, ez dagoela tekla majikorik, baina ez dezagun ahaztu langilerik gabe enpresariak ez direla ezer, eta urteetan irabazi dutena langileek eskuak urratu dituztelako bildu dutela.

Egia da krisiak mundu guztiari egin diola kalte. Baina gauza bat da hogeit mila irabaztetik bost mila irabaztera pasatzea, edo irabazirik ez edukitzea eta gordeta daukazun diruarekin bizi behar izatea. Eta beste bat, oso ezberdina, zure seme-alabentzako arropak erosteko dirurik ez edukitzea. Eta batzuek zein besteek izango dituzte krisiaren eragina begiradan, baina begirada batzuetan amorrua nabaritzen da.

“*Enpresariak urteetan irabazi dutena langileek eskuak urratu dituztelako bildu dute*”

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-mail: enter-i@arrakis.es



**optika
itze**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

Harategia

M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
*Geure Baserrian
Hazitako Txalak*
GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

LANA

Rock talderako abeslaria behar da.
☎ 695714749

Pisua alokatzen da Mallabian.
3 logela eta trastelekua.
☎ 617637886



Urtarrilaren 12an
Zorionak Paule eta musu handi
bat zure 2. urtebetetzean.



Otsailaren 8an
Zorionak Luken zure 4.
urtebetetzean. Primeran pasa
Hartza egun berezi honetan.



Matrikulatu **D** ereduan

Kalitatezkoa, aberasgarria, integratzailea... **D** lako

Gaur egun gehien euskalduntzen duen eskola eredu delako.

Ermuko guraso askok egiten duten moduan, zuen seme-alabak **D** ereduan eskolaratzera animatzen zaituztegu.

Euskara umeena ez ezik gazteena ere badelako, derrigorrezko hezkuntzatik gorako ikasketetan (batxilergoa, Lanbide Heziketa, unibertsitatea...) aukeratu ezazue **D** eredu, bihar-etziko pertsona eta profesional eleanitzak sortzeko.

Urte berri, sail berri

Noizean behineko gure erronka aldizkariko orri-tara berrikuntzatxoren bat ekartzea izaten da. Pare batekin gatz oraingoan. 'Taldea txoko' ren lekuan 'Munduko ahotsak' jartzen dugu abian, gurean bertakotu diren atzerritar etorkinei buruzkoak ezagutzeko asmoz. Bestalde, irribarretxo atera edo zer pentsatu emate aldera, Antonio Hernández 'Cuco' ren arkatx eta umore finari esker, 'Tasio eta Sabino' bikote txikitero autubatzaila izango dugu hileroko lagun, kalean entzun edo gertatutakoak biñeta bidez jasoz.

Bidali zure zorion-agurra edo iragarkia
drogeten@gmail.com helbidera edo
Elexostera ekarri (Erdikokale 2, 1.).


Hurrengo zenbakirako azken eguna:

OTSAILAREN 13a

OUTUMURO Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINITZA BEREZIA OSTRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

hamburguesería TITANIK



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**MALLABIA
1946**

Argazki hau Zengoitten aterata dago, 1946ko irailaren 8an, Arrate egunien; orduan auzoko festak garai horretan ospatzen omen ziren.

Bertan agertzen dira: Justa Maguregi, Angela Alberdi, Romana Pagate, Cecilio Agirrebeitia, Jesus Bilbao, Julian Bilbao, Jose Mari Aiarzaguena, Angel Barrena, Jose Luis Agirrebeitia, Segundo Agirrebeitia, Carmen Bilbao, Dolores Bilbao, Maria Teresa Bilbao, Petra Pagate, Alejandra Berriz, Maria Ortuzar, Francisca Pagate, Eusebia Pagate, Claudio Pagate, Mari Conchi Aiarzaguena, Maria Agirrebeitia, Maria Angeles Aiarzaguena, Maria Angeles Aldape, eta Maria Luisa Uriarte.

**ERMUA
1952**

Makurtuta daude Jesus Arrizabalaga, Gabino Azkarate, Victor Yarza, Luis Mari Izagirre, Jose Antonio Olabarra, Manuel Solozabal, Agustin Izagirre, Miguel Solozabal, Elias Izagirre eta Eduardo Pascual.

Urte horretako Santixau egunean aterata dago erretratua, frontoiko zabalean. Ezker-ezker aldean bistaratzen dira orduko sasoiko eskoletako nesken gelen hiru leihoak. Mutil aldra honetan tente eta ezkerretik eskumara ikus daitezke Alberto Gisasola, Daniel Solozabal, Santos Totorika, Jose Vicente Alberdi, Jose M^a Ugarteburu, Fernando López, Fernando Ucin, Estanis Izagirre, Antonio García, Julian Telleria, Jesus M^a Careaga eta Manolo Valdubieco.

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Orain dela hainbat hamarkada morokila jateko ohitura zegoen.

Arto-irina, ura eta gatzarekin egosi ostean ateratzen den kremari esaten zaio morokila.

Familien baliabideen arabera esne beroarekin nahastu, eta gosea hiltzeko janari aproposa zen.

Badakizu morokila zer den?

Nola egiten da?



Ez, ez dakit zer den ezta nola egiten den ere. Izan ere, sukaldean gauza gutxi egiten dakit...

Fernando Ferreiro, 67 urte



Arto-irin masa da, esnearekin egina. Behin jan dut, baina egia esan ez dut gustuko.

Bego Bárcenas, 67 urte



Bai, arto-irinarekin egiten da. Irina urarekin egosi eta gero esnearekin batera jaten da. Askotan jan dut txikitan. Gaur egungo gazteei horrelakorik ipiniz gero....

Elias Unanue, 67 urte



Bai, amaginarrebak azaldu dit morokila zen den. Arto-irina eta ura edo esnearekin egindako masa dela uste dut. Aspaldi jaten zen, baina nik ez dut sekula probatu.

Silvia Onandia, 47 urte



- Ermuan mundialak gara...

- ...Erregeek ere trafiko ataskoa jasan behar izan dute!

ZINEA

2tik 4ra:
'El hombre de las sombras' + 'El lado bueno de las cosas'.

9tik 11ra:
'Lincoln'
+ 'La banda Picasso'.

16tik 18ra:
'Django desencadenado' + 'El cuarteto'.

23tik 25era:
'La noche más oscura'
+ 'El vuelo'
Ermua Antzokian.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 3:
'El corazón del roble'.

Hilak 10:
'Saxaná y el libro mágico'.

Hilak 17:
'Monsters S.A. 3D'.

Hilak 24:
'Muck, un zorrillo muy astuto'.
17:00etan. Antzokian.

ZINE-KLUBA

Hilak 7:
'Quiero tener una ferretería en Andalucía'.

Hilak 14:
'El páramo'

Hilak 21:
'Nameless gangsters'

Hilak 28:
'Tabú'
20:30ean. Antzokian.

MUSIKA

Hilak 16:
Blues kontzertua: The Lucilles. 20:00etan.
Lobianon. Sarrera: 8€

Hilak 22:
Kontzertua: India Martínez. 22:15ean.
Antzokian. Sarrera: 12€

Hilak 23:
Ermuan kantuan.
12:30ean. Orbe Kardenalaren plazatik.

ANTZERKIA

Hilak 1:
'Gorda', Txalo Produzioak. 22:15ean.
Antzokian. Sarrera: 10€

Hilak 8:
'Gauerdian', Tanttaka. 22:15ean. Antzokian.
Sarrera: 10€

Hilak 15:
'8 mujeres', Izarraitz. 22:15ean. Antzokian.
Sarrera: 8€

INAUTERIAK

Hilak 7, osteguna. Eguen zuri
15:30ean: Oilarraren jokoa.
17:00etan: Diskofesta, Xaibor DJa.
Hilak 8, ostirala. Hartza eguna
18:00etan: Kalejira Orbe Kardenalaren plazatik.
Otsailak 9, larunbata
12:30ean: Kalejira, Irulitxa txaranga.
17:30ean: Haurrentzako txokolatada.
18,00etan: Haurrentzako erromeria, Irulitxa txaranga.
19:00etan: Kalejira, Corco txaranga.
19: 30ean: Haurrentzako mozzorro lehiaketa.
23:00etan: Dantzaldia, Continente orkestra.
Otsailak 12, asteartea
16:00etan: Diskofesta.
18:00etan: Kale ikuskizuna, 'Cavals de Menorca', Dubitats.
19etan: Kalejira: Sin juicio txaranga
23:00etan: DJ Festa Oihan Vegarekin.
Ekitaldi guztiak Orbe Kardenalaren plazan

ERAKUSKETAK

4tik 17ra:
Margoak: Keixeta & Alberto Ramírez.

18tik 3ra:
Margoak: Fernando Fernández.

18:00etatik
20:00etara. Lobianon.

Hilak 23:
Haurrentzako antzerkia: 'Katillukadak', Kontakatillu taldearen eskutik. 17:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 4€

BESTELAKOAK

Hilak 4:
Agata Deunaren kalejira. 18:30etik.
Musika Eskolatik.

Patxi López

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 2:
Haurrentzako ipuin-kontaketa: Lupe Lekuona.
17:30ean. Liburutegian.

Ferreteria/Burdindegi



- * Burdindesia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikuluak

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreterianboto.es

mari asun 

LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

Quetzal 

[arropa, bitxiak, opariak...]

berria!!
ekainetik aurrera
Eibarren ere

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Irale
 hortz klinika
Leire Irazu Garitaonandia

- Ortodontzia
- Aho zirujia
- Pedriodontzia
- Implanteak
- Odontologia orokorra

Zeharkale 8, behea 943 17 71 34
 www.irale.com

Yoga eskola
 Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak
 Erlaxazioa eta meditazioa
 Osteopatia eta bertebrologia
 Anginak sendatzeko masajea

Sanatana Dharma

San Roke 24, behea
 943 74 85 93
 685 722131 (Idoia) - 639 652729 (Lourdes)

san pelayo
 clinica dental hortz klinika

Implanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hortz-zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Ermua (Bizkaia)
 Olatz Garcia Arregu
 943 17 04 04

OSASUN GIDA

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4 Ermua Tel.: 943 030 512
 niklinika@gmail.com

NATURA
 Cristina García Pérez

- Elikagai biologikoak
- Terapia naturalak
- Naturopatarekin kontsultak
- Masajeak
- Dietistarekin kontsultak
- Kosmetika biologikoa

Belar-denda eta dietetika

Zeharkale 12 behea esk. - ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber

Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**Osasun gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 17 93 50
 edo 688 63 28 76 telefonora**

Mendi irteerak, kainoak, rafting, materialaren alokairua,
argazkiak, bideoak, informazioa, mapak, liburuak,
federatzeko tramiteak, ikastaroak, hitzaldiak...
eta jende ona benetan!



<http://www.artarrai.com>

<http://artarrai.blogspot.com/>

artarrai@euskalnet.net

ostegunero, 19:30etik 20:30era liburutegiaren gainean

